


# ¿Humanos o posthumanos?: singularidad tecnológica y mejoramiento humano

[blogak.donostiakultura.com/liburu-dantza/2016/01/21/humanos-o-posthumanos-singularidad-tecnologica-y-mejoramiento-humano/](http://blogak.donostiakultura.com/liburu-dantza/2016/01/21/humanos-o-posthumanos-singularidad-tecnologica-y-mejoramiento-humano/)

¿Humanos o posthumanos?: singularidad tecnológica y mejoramiento humano / coordinadores: Albert Cortina y Miquel-Ángel Serra. Fragmenta, 2015. – 525 orrialde. 33 €. – ISBN 9788415518143

Repost Zientzia Kaiera: Post hau jatorriz *Zientzia Kaieran* argitaratu zen.

**Gizakiak ala postgizakiak? Eztabaida eta debaterako oso aproposa den liburu honek gaurkotasun handiko gaiak azaltzen dizkigu. Egile nagusiak bi bira. Albert Cortina Ramos (Bartzelona, 1961) abokatua eta hirigintzan aditua (UAB y UPC) eta Miquel-Ángel Serra (Bartzelona, 1961) biologian doktorea (UAB), eta biomedikuntza arloko ikertzailea.**



Cortina eta Serraren liburuak humanismo berriztatzaile baten aldeko apustua egiten du eta kontzeptu berrietara hurbiltzen gaitu: berezitasun teknologikoa, giza hobekuntza, [posthumanismoa](#) eta [transhumanismoa](#)ren mugimendua.

Liburuaren abiapuntu edo gako nagusia: giza hobekuntza da. Giza hobekuntzak arriskuan jartzen al du gizakion izaera edo bizia? [525 orrialdeetan](#) transhumanismoaren inguruko hausnarketa sakon bat egiten da hiru ataletan. Lehenengo atalean “¿Humanos o posthumanos?”, Albert Cortina eta Miquel-Ángel Serraren artikulua bana datoz. Bi artikulua hauek izan ziren 2013ko irailaren 29an Bartzelonako [La Vanguardia](#) egunkariaren web orrian transhumanismoaren mugen inguruan sortu zen debatare hasiera eman ziotenak. **Cortina eta Serraren analisiaren gai nagusiak berezitasun teknologikoa eta giza hobekuntza dira.**

Bigarren atalean, “Debate 3.0”, Cortina eta Serraren iritzi artikuluen ondoren La Vanguardian hamabi hilabete iraun zuen eztabaida luzea jasotzen da. Bertan [hainbat arlotako 213 adituk](#) parte hartu zuten, besteak beste, zientzialari, teknikari, soziologo, filosofo eta teologoak.

Hirugarren atalean, “¿Presente o futuro?”, liburu kolektibo honen bi egile nagusiek, **teknologia emergenteak gizakian, sistema naturaletan eta habitat urbanoetan izan dezaketan eraginari buruzko galderak egiten dituzte.** Guztira 250 galdera dira eta gehienak posizionamendu edo jarrera etiko eta berria eskatzen digute humanismoa, demokrazia eta guztien ona kontzeptuen inguruan. Liburu honetara hurbiltzen denak bakarka hausnartzeko edo taldean eztabaidatzeko gaiak aurkituko ditu. Azkenik, irakurketa gaiekin jarraitu nahi duenak, bibliografia osagarri bat aurkituko du argitalpenaren amaiera orrietan.